Izenburua: BIRZIKLAPEN INDUSTRIALA
Musika: Mikel Gorosabel Garai
Hitza: Asier Serrano

Baldintza ustelez josita
ditugu garunak hezita
Zu itzali telebista
etzazu galdu gure pista
harro aro kapitalista
para mi ensalada mixta
erle gorri horiek zizta

Babelgo dorre galdua
hizkuntzen doktrina erua
egi korrikaldi geldua
komunikazio zentzua
gurari altxor faltsua
aurpegi bereko dirua
urre meta hauskor antzua

Afrikarren baltz koloria
lehorrian erein loria
ase bariko lur baria
sikatearen lehen hiria
eritasunean irria
barri panfletoen saria
hezur okerren zauria

Gure kultura ordezkatzen
futbola arte bilakatzen
lain gaituzte nazkatzen
astelehen markia banatzen
saltzen gezurra munduratzen
hitzak sasitan landatzen
sasi gizateria eratzen

GU SINISMENEN MUGETAN GAUDE
GU BERBA KALTETUAREN ALDE

Izenburua: LEGEZTATUTAKO BAIMENAK
Musika: Mikel Gorosabel Garai
Hitza: Asier Serrano

Naufragioz itotzen
erantzunez aurrez galdetzen
lotsa samaz bortxatzen
gizarte oro su piztez suntsitzen

Eh hi bihotz urdin
eh hi buru arin
egi bila nabil
hire idei faltsuak hil.

Bihotzetan oihalak
pistoletan akatzeko balak
herdoildurik alkoholaz
eskuak zikin torturen odolaz.

Izenburua: URTEKO PASARTEAK
Musika: Facundo Amador Calderón Andrés
Hitza: Asier Serrano

Oroituz iraganeko ispiluan
urteko pasarteetan
jabetuz airean ez dagoena
izanaren sormena

Eta gaur itzalen erronkan
zu zaitut gogoan
biziz itxura galdurik
urteko pasarteak

Badakit gomutaren zingiran
egiaren begian
galtzeko nituen apustuak
zure suzko musuak

Eta gaur tren bat bailitzan
ezin zu nire izan
Eta non idatzi ote diren
urteko pasarteak

Begira zorionaren bizia
amodio eztia
lotsaz ereindako amorrua
mintzearen errua

Eta gaur zure argazkietan
etsituaren lo faltan
nola ahaztu ote diren
urteko pasarteak

Gutunez barkazioa helaraziz
berriz nahian hasiz
ostoak erortzen diren artean
urteko pasartean...

Izenburua: ASMAKIZUNA
Musika: E.H. Sukarra
Hitza: Asier Serrano

Galdu naiz
izen batez
formetan baliteke
Ni
Nahita naizena
baina izanez
nahi dudana izan.

Haizez
izen bat naiz
izan banaiz
Lurrez
izen bat naiz
izan banaiz
Urez
izen bat naiz
izan banaiz
Garrez
izen bat naiz
izan banaiz

Izenburua: URA SUTAN
Musika: Asier Olabarrieta Lizaso
Hitza: Asier Serrano

Gauaz izurtzen diren panfleto guztietan
kontraesanez betetako herri zikin puta hontan
Gezurraren garaiak bizi ditugu nonnahi
egia esatearen beldur gara nonbait

Nor haiz galdetzen diat
ura, ura sutan
Ura sutara jaurtikitzeko gai ez gara
Nor haiz galdetzen diat

Ura sutan ama begien kresala
ura sutan torturatuen azala
ura sutan zelda ilunen itzala
ura sutan...

Kaleko tristura argia den bitartean
gibeletik hots isilak helduen artean
hitzegiterik ez bada begiei begira
nola heldu gaitezke amets dugun egira

Nor haiz galdetzen diat
ura, ura sutan
odolak garrak itzaltzen dituen heinean
ura, ura sutan...

Ura sutan ama begien kresala...

Izenburua: ESPALOI GALDUNAK (IRRISTASIRAN)
Musika: Mikel Gorosabel Garai
Hitza: Asier Serrano

Espaloi galduak
kantoi mutuak
bide argiak
amatatuak

Noraezean
ahaztuz doa
iraganaren
zentzu goxoa

HI NI SO NAUN
HI NI ZAI NAUN

Zuhaitzik bada
lurperatzeko
bizi altxorrak
deusezteko

Jainkosa ustez
utzitakoa
maitasun ezina
galdutakoa.

Izenburua: BARBITURIKO BARIKO BARBAK
Musika: Mikel Gorosabel Garai
Hitza: Asier Serrano

Ume ametsak
gogora dakar
maitasun hotsak
helmuga bakar
luma orduak
berben ortuak
ez daigun utzi hiltzen
hitzen eremu mortua

Hitz klabeetan
dator nigana
izan nintzena
naizen izena
haur bihotza ote
bihotz haurra ote
berriro nahi zintuzket
niretzat gorde..

Urteak oinez
ezinbestean doaz
iraganaren
ispiluaren soaz
geltokirik gabe
paratzerik ez
garaien laberintoen
ume galdu ororen lez

Herri partaide
bilakatu behar
gizarte honen
ohituretan zehar
bada garaia
ez da hain zaila
moztu ditzagun nahiak
urdin dituen zainak.

